



Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua  
Proceso para mejorar el servicio de autobuses

## Parte hartzeko bilerak / Reuniones

### MARTXOA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31	1	2	3	4	5	

- 20 Mendaro 19:00 Udaletxean
- 25 Deba 19:00 Agirre jauregian, Ispilu gelan
- 27 Itziar 20:00 Apaizetxean

### APIRILA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
31	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	1	2	3	4

- 1 Eibar 18:30 Portalea aretoan
- 3 Soraluze 18:30 Kirodegiko zineman
- 8 Mutriku 18:30 Kultur etxea
- 10 Elgoibar 18:00 Kultur etxea

## Parte hartzeko beste bideak / Otras vías para participar



[www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)

Webgunean, parte hartzeko aukera izateaz gain, autobus zerbitzuaren proposamenari buruzko informazio osoa topatuko duzu.


Mediante la página web podrás participar, pero también podrás acceder a la información detallada de la propuesta.



@garraioahobetuz



<https://www.facebook.com/GarraioaHobetzen>



2.  
FASEA

[www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)



herritarrek  
martxan en marcha



Gipuzkoa  
BERRIA

Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua  
Proceso para mejorar el servicio de autobuses

### PARTE HARTU ETA IRABAZI

Autobus zerbitzua hobetzeko prozesuan parte hartu eta inkesta betetzen duten guztien artean Mugi/Lurraldebus txartela kargatzeko 20 euroko bonoak zotz egingo ditugu.

### PARTICIPA Y GANA

Entre todas las personas que participan en el proceso y rellenen la encuesta se sortearán bonos de recarga de 20 euros para las tarjetas Mugi/Lurraldebus.

# Debabarrena

Gipuzkoako autobus zerbitzua hobetzeko prozesua martxan jarri zen iaz, eta 56 herritan herritarren iritzia jaso ostean, teknikariek aurreproiektuak egin dituzte; orain, Gipuzkoako Foru Aldundiak berriro herritarren iritzia jaso nahi du, proposatutako zerbitzu berria herritarren beharretara egokitu den jakiteko. Beraz, aurreproiektuak ezagutaraztea eta horien inguruan jendeak duen iritzia jakitea da martxoan eta apirilean egingo den fase honen helburua. Parte hartu eta eman iritzia, autobus zerbitzua hobetzea zure esku ere badagoelako!

A finales del 2013 comenzó el proceso para mejorar el servicio de autobuses de Gipuzkoa, en cuya primera fase se recabó la opinión de la ciudadanía de 56 municipios. En base a esas aportaciones un equipo técnico ha confeccionado el anteproyecto para la mejora del servicio de autobuses, y ahora, durante marzo y abril, la ciudadanía tiene la oportunidad de volver a dar su opinión. Por lo tanto, todavía tienes la posibilidad de hacer tus aportaciones para mejorar el servicio. No pierdas esta oportunidad.

Kanpaina honek 55.000 euroko kostua izan du (webgunea, kartelak, irrati tarsteak, diptikoak...). Guztira 160.000 diptiko inprimatu dira eta ale bakoitzaren kostua 0,025€ da.

**Debarreneko herritarren ekarpenak jaso zituen Aldundiak eta horren arabera aurreproiektua egin du. Hemen duzu zerbitzuari buruzko informazio nagusia, eta gai zehatzei buruz iritzia emateko aukera duzu. Kontuan hartu soilik proposamenak direla hemen azaldukoak.**

Herria

Adina  16-30  31-45  46-65  > 65

Sexua  emakumea  gizona

E-posta edo telefonoa

## ESKAERA OROKORRAK

**Ordutegiak luzatzea:** Zerbitzu nagusiak astegunetan 6:00-6:30ak aldera hasiko dira eta 21:30-22:00etan bukatu; saioa egingo da zerbitzu garrantzitsuenen amaiera ordua atzeratzeko.

Ados  Desados  Ez dakit

**Ospitalera zerbitzuak areagotzea:** Mendaroko ospitalera orain arte baino hiru zerbitzu gehiago jarriko dira, bertatik pasatzen diren lineen ordutegia zabaldu egin da, beranduago ateratzeko bertatik.

Ados  Desados  Ez dakit

**Herrietako jaietako zerbitzua:** Herrietako jai egutegi berezia egingo da egun horietan zerbitzua indartzeko, batez ere gauetan.

Ados  Desados  Ez dakit

## AUTOBUS LINEAK:

**1 Deba - Itziar - Zumaia:** Autobus zerbitzu berria da, eta astegunetan 9 zerbitzu izango ditu norabide bakoitzean; 6:45etik 20:15 bitarte. Larunbatetan eta igandeetan goiz goizeko zerbitzu bat edo bi kenduko dira, baina iluntzean beste bat gehituko da 21:45ean. Lineak oraingo Deba-Itziar zerbitzua ordezkatuko du, eta herritarren hainbat eskariri erantzongo zaie: zerbitzu gehiago izango dira (orain 6-7 daude); itziartarrek Zumaiarekin lotura eskatu zuten, bertara joan ohi baitira hainbat kontutarako, eta orain arte ez zuten lotura hori; ordutegiak Debako Eusko Trenen zerbitzuarekin koordinatu dira. Goizeko lehenengo zerbitzua Debatik beharrean Ondarroatik aterako da 6:20ean.

Ados  Desados  Ez dakit

**2 Mallabia - Ermua - Eibar - Elgoibar - Aitzola - Mendaro - Deba - Mutriku - Ondarroa:** Ibilbide osoa 15 zerbitzuz emango dute norabide bakoitzean; Ermua eta Mendaro artean beste 31 zerbitzu izango dira norabide bakoitzean, eta horietatik 17 Ermutik hasi beharrean Mallabitik hasiko dira edo Mallabiraino iritsiko dira. Hau da, maiztasuna gaur egungoa izango da, baina egungo zerbitzuarekin alderatuta arratsaldeko azken orduko zerbitzuak luzatu egingo dira; 20:45etakoa Ondarroaraino iritsiko da eta 21:25ekoa ere bai. Ondarroatik Elgoibarrera bitarteko beste zerbitzu bat gehitzen da 22:10ean. Garraio aldaketei begira, zerbitzuen ordutegia moldatu da Eibarren Bizkaibusekin eta EuskoTrenekin koordinatzeko.

Ados  Desados  Ez dakit

**3 Eibar - Soraluze - Elgoibar - Mendaro - (Deba):** Astegunetan Eibar eta Soraluze artean 11 zerbitzu beharrean 13 izango dira, azken orduan bat eta eguerdian beste bat. Mendaroko ospitaleraino orain arte baino bi zerbitzu gehiago joango dira, bat eguerdian eta bat arratsaldeko azken orduan; 7 norabide bakoitzean. Mendaroko ospitalera asteburutan lau zerbitzu ezarriko dira (orain arte ez zegoen). Beste aldaketa

nagusia izango da udaran lau zerbitzu jarriko direla norabide bakoitzean Debaraino, hondartza joan nahi duen jendearen eskaerari erantzuteko.

Ados  Desados  Ez dakit

**4 Donostia-Elgoibar-Eibar-Ermua:** Gaur egun baino zerbitzu bat gehiago izango du: 18 guztira. Izan ere, iluntzean ordutegia zabalduko da eta Donostiatik eta Eibartik azken zerbitzuak 21:30ean aterako dira. Larunbatetan zerbitzua areagotuko da, astegunetan bezainbeste zerbitzu izango baitira, eta igandeetan orain baino zerbitzu bat gehiago, arratsaldeko azken orduan. Egunean zerbitzu bat lbaetatik (Donostia) sartu edo aterako da, unibertsitateko ikasleei zerbitzua emateko: 7:20ean Ermutik ateratzen dena eta 14:30ean Donostiatik ateratzen dena.

Ados  Desados  Ez dakit

**5 Lekeitio - Berriatua - Ondarroa - Mutriku - Deba - Itziar - Donostia:** Astegunetan 4 zerbitzu mantenduko dira norabide bakoitzean, eta asteburutan ere 4 izango dira (orain arte baino 2 gehiago). Egunean zerbitzu bat lbaetatik (Donostia) sartu edo aterako da, unibertsitateko ikasleei zerbitzua emateko: 6:30ean Lekeitiotik ateratzen dena eta 14:30ean Donostiatik ateratzen dena.

Ados  Desados  Ez dakit

**6 Eibar - Elgoibar - Azkoitia - Azpeitia - Zestoa:** Orain arteko Ermua-Azpeitia ordezkatuko du, eta hark dituen 7 zerbitzuen aldean 10 izango ditu. Ordutegiak egokitu dira Eibarren Bizkaibusekin eta EuskoTrenekin lotura egin ahal izateko.

Ados  Desados  Ez dakit

**7 Eibar - Soraluze - Bergara - Arrasate - Eskoriatza:** Astegunetan orduro dago zerbitzu bat. Goizeko lehen orduan zerbitzu batek ibilbide osoa egingo du (orain arte ez bezala)

eta beste hainbeste gertatuko da arratsaldeko azken orduan; baina, horrez gain, 22:00ak aldera zerbitzu berri bat jarriko da norabide bakoitzean. Ostiraletan ordutegia zabalduko da 23:00ak arte, bi zerbitzu gehiago jarrita norabide bakoitzean.

Ados  Desados  Ez dakit

**8 Eibar - Bergara - Arrasate - Gasteiz (AP-1etik):** Eibartik 7:00tan ateratzen den zerbitzua Bergarara joango da eta bertatik zuzenean autopistara, Arrasatetik pasatu gabe. 7:15ean zerbitzu berri bat aterako da Eibartik (orain Bergaratik abiatzen da).

Ados  Desados  Ez dakit

**9 Eskoriatza - Aretxabaleta - Arrasate - San Prudentzio - Bergara - Soraluze - Elgoibar - Donostia:** Ibilbide honetako 6 zerbitzu pasako dira Debarrenatik, orain arte bezala, baina ostiral eta larunbat iluntzetan beste zerbitzu bat jarriko da 22:00ak aldera. Udaran zerbitzu berria jarriko da, Arrasatetik Debara joateko, 5 zerbitzu egunero norabide bakoitzean.

Ados  Desados  Ez dakit

**10 Arrasate - San Prudentzio - Bergara - Eibar - Loiu:** Aireportura joateko zerbitzu honetan orain arte baino zerbitzu bat gehiago jarriko da norabide bakoitzean; goiz-eguerdi aldera.

Ados  Desados  Ez dakit

### Beste proposamen edo ekarpenik egin nahi baduzu

Inkesta bete ondoren, utz ezazu zure herrian edo herri arteko autobusetan jarrita egongo diren postontzietan, edo bidali postaz helbide honetara: Mugikortasun departamentua, Miramon Pasealekua 166 - 20014 Donostia.

**Diputación recibió aportaciones ciudadanas de Debarrena y en función de ellas ha elaborado el anteproyecto. Aquí se le ofrece la información más importante del servicio y puede opinar sobre aspectos concretos. Las aquí expuestas son únicamente propuestas.**

Municipio

Edad  16-30  31-45  46-65  > 65

Sexo  mujer  hombre

Email o teléfono

## DEMANDAS GENERALES

**Ampliación de horarios:** Los servicios principales de los días laborables comenzarán hacia las 6:00-6:30 horas y finalizarán a las 21.30-22:00; se propone retrasar la hora de fin del servicio.

De acuerdo  En desacuerdo  No sabe

**Incremento de servicios al hospital:** Se establecerán tres servicios más al hospital de Mendaro y se ha extendido el horario de los servicios que pasan por el hospital para poder salir o entrar más tarde en el.

De acuerdo  En desacuerdo  No sabe

**Servicios en fiestas:** A efectos de reforzar el servicio, sobre todo nocturno, se elaborará un calendario específico de fiestas para esos días.

De acuerdo  En desacuerdo  No sabe

## LÍNEAS DE AUTOBÚS:

**1 Deba - Itziar - Zumaia:** Es un servicio nuevo. Los días laborables contará con 9 servicios en cada dirección desde las 6:45 a las 20:15. Los sábados y domingos se suprimirán dos servicios por la mañana temprano y se incrementará uno nocturno a las 21:45. Esta línea sustituirá a la actual Deba-Itziar atendiendo así algunas demandas ciudadanas: habrá mayor número de servicios (actualmente hay 6-7); la gente de Itziar solicitó conexión con Zumaia, pues es a donde se suelen dirigir para determinados cometidos y hasta hoy carecían de conexión; los horarios se coordinarán con el servicio de Euskotren en Deba. El primer servicio de la mañana partirá desde Ondarroa, a las 6:20, en lugar de hacerlo desde Deba

De acuerdo  En desacuerdo  No sabe

**2 Mallabia-Ermua-Eibar-Elgoibar-Aitzola-Mendaro-Deba-Mutriku-Ondarroa:** 15 servicios completarán todo el recorrido en cada dirección. Se ofrecerán otros 31 servicios en cada dirección y 17 de ellos partirán desde Mallabia en lugar de hacerlo desde Ermua, o llegarán hasta Mallabia. Por lo tanto, la frecuencia será la misma que actualmente, difiriendo de esta en que los últimos servicios de la tarde alargarán el recorrido; el servicio de las 20:45 llegará hasta Ondarroa igual que el de las 21:25. Se incrementa un servicio entre Ondarroa y Elgoibar a las 22:10. A efectos de transbordos se ha retocado el horario de los servicios con el fin de coordinarse en Eibar con Bizkaibus y Euskotren.

De acuerdo  En desacuerdo  No sabe

**3 Eibar-Soraluze-Elgoibar-Mendaro-(Deba):** Los días laborables los servicios entre Eibar y Soraluze serán 13 en lugar de 11, con uno más al mediodía y otro a última hora. Llegarán hasta el hospital de Mendaro dos servicios más que los actuales, uno al mediodía y otro a última hora; 7 en cada dirección. Se habilitarán cuatro servicios diarios los fines de semana (inexistentes en la actualidad). Otro cambio sustancial

es la habilitación en verano de cuatro servicios por dirección hasta Deba atendiendo la demanda de quienes quieran ir a la playa.

De acuerdo  En desacuerdo  No sabe

**4 Donostia-Elgoibar-Eibar-Ermua:** Contará con un servicio más que en la actualidad: 18 en total. Se ampliará el horario nocturno ya que las últimas salidas desde San Sebastián y Eibar se efectuarán a las 21:30. Se intensificarán los servicios de los sábados implantándose el mismo número de servicios que en los días laborables, con un servicio más que en la actualidad los domingos. Un servicio en cada dirección efectuará su entrada y salida a San Sebastián a través de lbaeta, con el objeto de prestar servicio a los universitarios: salidas desde Ermua a las 7:20 y de San Sebastián a las 14:30.

De acuerdo  En desacuerdo  No sabe

**5 Lekeitio-Berriatua-Ondarroa-Mutriku-Deba-Itziar-Donostia:** Se mantendrán los 4 servicios por cada dirección de los días laborables, siendo también 4 los de fin de semana (2 más que los actuales). Un servicio en cada dirección efectuará su entrada y salida a San Sebastián a través de lbaeta, con el objeto de prestar servicio a los universitarios: salidas desde Lekeitio a las 6:30 y de San Sebastián a las 14:30.

De acuerdo  En desacuerdo  No sabe

**6 Eibar-Elgoibar-Azkoitia-Azpeitia-Zestoa:** Sustituirá al actual servicio Ermua-Azpeitia y contará con 10 servicios en lugar de los 7 que sustituye. Los horarios se han adaptado con objeto de facilitar la conexión en Eibar con Bizkaibus y Euskotren

De acuerdo  En desacuerdo  No sabe

**7 Eibar-Soraluze-Bergara-Arrasate-Eskoriatza:** Los días laborables se ofrecerá un servicio cada hora. A primera hora

de la mañana un servicio que hasta ahora no realizaba todo el recorrido lo realizará, y se habilitarán nuevos servicios a última hora de la tarde; pero, además, hacia las 22:00 habrá un nuevo servicio en cada sentido. Los viernes se ampliará el horario hasta las 23:00, con dos servicios más en cada dirección.

De acuerdo  En desacuerdo  No sabe

**8 Eibar-Bergara-Arrasate-Gasteiz (AP-1etik):** El servicio que sale de Eibar a las 7:00 irá Bergara y luego entrará en la autopista sin pasar por Arrasate. A las 7:15 de la mañana habrá un nuevo servicio desde Eibar (hasta ahora salía desde Bergara).

De acuerdo  En desacuerdo  No sabe

**9 Eskoriatza - Aretxabaleta - Arrasate - San Prudentzio - Bergara - Soraluze - Elgoibar - Donostia:** 6 servicios de este recorrido pasarán por Debarrena, como hasta ahora, pero los viernes y sábados habrá un nuevo servicio hacia las 22:00. En verano se establecerá un nuevo servicio entre Arrasate y Deba, con 5 servicios en cada dirección.

De acuerdo  En desacuerdo  No sabe

**10 Arrasate - San Prudentzio - Bergara - Eibar - Loiu:** Se establecerá un nuevo servicio al día en cada sentido; al mediodía.

De acuerdo  En desacuerdo  No sabe

### Si quieres realizar cualquier otra aportación o propuesta

Después de rellenar la encuesta, deposítala en uno de los buzones que encontrarás en tu pueblo o en los autobuses interurbanos, o envíala por correo a Mugikortasun departamentua, Miramon Pasealekua 166 - 20014 Donostia.